



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA
ETXEBIZITZA SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA
Viceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Administración Ambiental

EBAZPENA, 2019ko martxoaren 18koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez garatzen baita Azkoitiko Oinartxo 26. sektorerako Plan Partzialaren aldaketaren ingurumen-azterlan estrategikoaren irismenari buruzko dokumentua.

AURREKARIAK

2018ko azaroaren 30ean, Azkoitiko Udalak Oinartxo 26. sektoreko Plan Partzialaren aldaketaren ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera egin zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko Lege Orokorrak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta ingurumen-ebaluazioari buruzko Legeak (abenduarien 9ko 21/2013 Legea) xedatutakoarekin bat etorritz.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, sektoreko legerian eskatutako dokumentazioa, hasierako dokumentu estrategikoa, eta planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. Eranskineko formularioa.

2019ko otsailaren 8an, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritako kontsulten tramitea egin zen. Administrazio publiko eta pertsona interesdun hauei egin zien kontsulta ingurumen-organoak:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Ura, Uraren Euskal Agentzia.
- IHOBE. Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumenaren Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan Elkarteak.
- Itsas Enara Ornitologia Elkarteak.
- Haritzalde Naturzaleen Elkarteak.
- Eguzki, Eguzkizaleak Elkarteak.

Bestalde, data horretan bertan, eragindako administrazio publikoen eta pertsona interesdunen eskura jarri ziren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean planaren zirriborroa, sektoreko legeriak exijitutako dokumentazioa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. Eranskineko formularioa, planaren gaineko interesa izan zezakeen oro identifikatzeko asmoz.

Dagokion legerian ezarritako epea amaitzean, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren (guztiak Eusko Jaurlaritzarenak) erantzunak jaso dira. Espedientean daude jasota horien emaitzak.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak 10. artikuluan diotenaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK



Ingurumen-ebaluazioaren xedea hauxe da, ingurumen-ebaluazioari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera: ingurumenean ondorio adierazgarriak eragin ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea, ingurumenaren babes-maila handia bermatuz, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta beharko dute administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako planek eta programek, bai eta haien aldaketek ere, haien prestaketa eta onarpena beharrezkotzat jo badu legezko edo erregelamenduzko xedapen batek, artikulua honetan zehaztutako baldintzaren bat betetzen dutenean.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ohiko ingurumen-ebaluazioa hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organismoak ingurumen-azterlan estrategikoaren irismena zehaztea, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek 18.1 artikuluan ezartzen du zer dokumentu erantsi behar zaizkion hasierako eskabide horri; bestalde, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez dion orotan, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatu egiten du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterlan estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziazko dokumentuaren edukiari eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira eta honako hauek guztiak ikusi dira: otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra (Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babestekoa), abenduaren 9ko 21/2013 Legea (Ingurumeneko Ebaluazioari buruzkoa), urriaren 16ko 211/2012 Dekretua (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena), apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena), urriaren 1eko 39/2015 Legea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena), urriaren 1eko 40/2015 Legea (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa) eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Azkoitiko Oinartxo 26. sektorearen Plan Partzialaren aldaketaren (aurrerantzean, Planaren aldaketa) ingurumen-azterlan estrategikoaren irismenari buruzko dokumentua garatzea, ingurumenerako soilik eta honako baldintza hauen arabera:

1.- Planaren aldaketaren xedea.

Planaren aldaketak Oinartxo 26. eremuaren zehaztapan xehakatu berriak ezartzen ditu, hala, bi lurzati fusionatu eta bakar bat konfiguratu, eta indarrean den plangintzak ematen duen oinplanoko okupazioa handitu ahal izateko.

Horretarako, jarduketa hauek proposatu dira:



- Oinartxo 26. sektorearen V4 eta V5 lurzatiak fusioatzea eta bat-egitetik eratorritako lurzatiari lurzoru urbanizaezineko 3.500 m² gehitzea.
- Irizar errekaen trazadura aldatzea, eraikuntza-garapen berriak gaur egungoaren ondoan eraikitzeko oztopo bat izan ez dadin.
- Oinartxo 26. sektoreko ekipamenduak, azpiegiturak eta berdeguneak birmoldatzea, Oinartxo-Egino Berri multzoaren gaineko ikuspegi globalean oinarrituta. Gaur egun elkarrengandik bereizten dituen bide publikoaren zatia bat egindako lurzatian txertatzea, baita haren ertzetan geratzen diren berdegune publikoaren zatiak ere, lurzatiarako sarbide berri bat egin ahal izateko ibilgailuentzat.
- Birmoldaketa urbanistikoaren xede izango diren lursail guztiak barne hartuko dituen exekuzio-unitate bat zehaztea eta hari Irizar errekaen trazadura berriaren exekuzioa lotzea.

2.- Ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentuaren edukia:

Ingurumen-azterlan estrategikoak gutxieneko eduki hau hartu beharko du barne: abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean eta planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoa (I. eranskinean jasotakoa ere kontuan izan behar da).

Kontuan izanik eremuaren ezaugarriak eta gauzatu nahi diren jarduketak, gai hauek jasoko dira:

A. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak

IV. Ingurumen Esparru Programa 2020 egitasmoan jasotako helburu estrategikoetan eta jarduketa-ildoetan oinarrituko da Plana¹. Planak 2.1. jarduketa-lerroa («2.1: Karbono-igorpen txikika ekonomia lehiakorra bultzatzea») nola barne hartzen duen baloratuko da, bereziki 18. jarduketa: *Energia aurrezte eta efizientzia sustatzea arlo guztietan (etxebizitzak eta eraikinak, mugikortasuna, industria, zerbitzuak, lehen sektorea, administrazio publikaak eta produktuen kantsumoa) eta energia-iturri berriztagarriak bultzatzea.*

Horrez gain, Euskadiko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrean bildutako irizpideak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuan bildutakoak jaso beharko ditu.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 2. artikulua aplikatuz, honako hauek dira Planaren ingurumen-ebaluazioa gidatu beharko duten garapen jasangarriaren printzipioak:

- a) Lurzorua zentzuz erabiltzea eta lehendik ere artifizialduta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Baliabide naturalen kontsumo jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzoru eta materialak.
- d) Habitatak eta espezieak, ingurumen naturala eta konektibitate ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- e) Paisaia eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- f) Energiaren aurrezpena eta energia berriztagarrien efizientzia eta erabilera sustatzea, baita kogenerazioa ere.
- g) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien mende bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.

¹ http://www.euskadi.eus/contenidos/estadistica/amb_ia_2015/eu_def/PMA_2020_eu.pdf

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterlanak kontuan hartu behar du proposatutako jarduketetan sartzen direla Planaren aldaketan aplikatu beharko diren ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasun-irizpideak, aipatutako garapen jasangarriko printzipioetatik datozenak.

B. Ingurumen-ebaluazioaren eremu geografikoa

Planaren aldaketak xede duen eremua Azkoitiko hirigunearen mendebaldean kokatuta dago, Oinartxo 26. sektorean, hain zuzen ere. 48.560 m² inguruko azalera du eta bi lurralde-eremu bereizik osatzen dute:

- Oinartxo 26. sektorearen barruko eremua: jarduketak gaur egungo V4 eta V5 lurzati industrialei eragiten die, baita bide publikoari eta bi lurzatiarten artean dauden aparkalekuei, bien ondotik igarotzen den ibilgu publikoaren tarteari, bi lurzatiarten artean eta inguruan kokatuta dauden berdegune interstizialei, eta kirol-ekipamenduko eta ekipamendu sozialeko (E5) lurzatiei ere.
- Gaur egungo Oinartxo sektorearen kanpoko eremua: 26. eta 27. sektoreen jarraian dagoen lurzorua urbanizaezin bati eragiten dio.

C. Ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremuak

Planaren eremuaren inguruan ezaugarri eta ingurumen-balio azpimarragarri hauek identifikatu dira:

- Irizar erreka hodi bidezko trazadura batetik iristen da sektorera, Egin Berri sektorearen erdialdetik. V4 eta V5 lurzatiarten artean —tarte horretan trazadura aldatzea planteatu da—, ibilgua bi harri-lubeta bertikalen artean igarotzen da eta zorroten mailakatu bat osatzen du ia, goialdetik behera jaisten dena, industrialdeko goiko bidearen azpitik igaro arte. 120 m inguruko tarte bat da, lerro zuzena; bertan, errekaaren ibilgua 9 m jaisten da gutxi gorabehera.
- Eremuan dagoen landaredia espezie erruderaiek eta nitrofiloek osatzen dute, oso ohikoak inguru gizatiartuetan; batik bat, aztertzen ari garen eremuaren hegoaldean dauden, gaur egun hiritartuta dagoen eremuan. Elordiak edo txilar-lahardiak, oteak eta iratze atlantikoak ere identifikatu dira jarduketa-eremuaren ipar-ekialdean. Azterketa-eremuaren iparraldean, GI-3173 errepedea gurutzatu ondoren, ondo kontserbatuta dagoen belardi bat dago; bertan, harizti azidofiloak edo harizti-oihan misto atlantikoak daude, fase gaztean edo degradatuan.
- Jarduketa-eremuaren iparraldeko muga dago Izarraitz, Aizkorri-Aratz eta Urkiolako eremuak lotzen dituen korridorearen moteltze-eremua.
- Eremua «Azkoitia-Azpeitia Arroa» izeneko Paisaia Unitateari dagokio eta, bertan, industrialdeen irudia hobetzea planteatu da, inpaktu handia baitu paisaian. Jarduketa-eremuaren paisaia eremu industrializatuarena da gehienbat, eta haren ertzeko gunetan belardi eta kultibo atlantikoak daude. Era berean, inguruan hainbat baserri daude sakabanatuta, baita baso-sartzeak ere.

D. Jarduketak egiteko egokiak ez diren inguruak

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterlan estrategikoak. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da, haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abarrak ebaluatzeko aukera emango duena.

Kontuan hartu beharreko ingurumen-arriskuei dagokienez, honako hauek dira garrantzitsuenak:



- Lursaila kokatuta dagoen lurzatia Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten inbentarioan sartuta dago. Inbentarioa 2013an egin zuen IHOBE SA, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak (Eusko Jaurlaritza), eta 20017-00068 kodea du.

2010eko urriaren 4an, Ingurumeneko sailburuordearen ebazpena eman zen. Ebazpen horren bidez, hondakindegri gisa erabili diren lurzati batzuen kalitatea adierazten da (Oinartxoko industrialdea etorkizunean handituko den esparruan kokatuta daudenak, Azkoitian), lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeak araututako prozeduraren arabera. Adierazpen horren arabera, aipatu diren kokalekuak –horien artean, azterketaren xede den eremua– bateragarriak dira aurreikusitako industria-erabilerarekin. Dena den, aurreikusitako indusketa-prozesuan zehar lurzoruak kaltetu ditzaketen arrastoak hautematen badira, horiek behar bezala kendu, bereizi, tratatu eta/edo kudeatu/hondakindegira eraman beharko dira.

Hala dagokionean, kontuan izan behar da lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikuluko hirugarren apartatua: «23. artikuluko lehen zatiko a) edo d) letretan jasotako kasuak gertatzen direnean eta alde aurretik lurzoruaren kalitatearen deklarazio bat badagoenean, Autonomia Erkidegoko ingurumen-organon egin beharko da kontsultu, ebazpen arrazoituaren bidez adierazpen horren balioz irizpena eman dezan eta, behar izanez gero, balio horri eusteko baldintzak ezar ditzon».

- Ingurumen-azterlan estrategikoak eremuaren ezaugarri geoteknikoak baloratu beharko ditu Planak proposatzen duen industria-garapeneko proposamena gauzatu ahal izateko.
- Gaur egungo egoeran identifikatutako ingurumen-zarata kontuan hartuta, kanpoaldean kalitate akustikoko helburuak betetzen direla ondoriozta daiteke, inolako neurririk hartu behar izan gabe. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko 36. artikulua betetzearren, inpaktu akustikoaren azterlan bat gehitu beharko da, arau horretako 37. artikulua eta hurrengoaren arabera. Planaren aldaketak proposatzen duen ekipamendu motaren bat ezartzeko aukerari dagokionez, babes akustikoko eskakizun zorrotzagoak dagozkien erabilerak onartzeko aukera justifikatu beharko da, hartzaileetan aurreikusitako kalitate akustikoko helburuak betetzen direla bermatzen denean, betiere urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko III. Eranskineko 1.-2.e puntuan jasotzen den moduan.

E Aurrez egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-analisi laburra

Jarraian, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten tramitean jasotako txostenetako ingurumen-arloko eduki garrantzitsuenak laburbildu dira:

Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzarentzat beharrezkoa da landareztatze-lanak gehiago zehaztea eta lan horiek Plan Partzial berriarekin lotzea.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak uste du proposatutako aldaketak ez diola eragiten kultura-ondareari.

F Ingurumen-azterlan estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ebazpen honen 2. puntuan adierazi den moduan, ingurumen-azterlan estrategikoak Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013) IV. eranskinean ezarritako edukia izan beharko du, eta hori urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena) II. eranskinean jasotzen denarekin osatu beharko da.



Aurrekoarekin bat etorritik, garatzen diren apartatuek honako eskema metodologiko honi jarraitu beharko diote:

1. Edukia, helburuak eta beste plan eta programa batzuekiko harremanak.
2. Ingurumenaren egungo egoera.
3. Ingurumenean gerta daitezkeen eragin esanguratsuak.
4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak.
5. Alternatibak aukeratzeko prozesua.
6. Ingurumena zaintzeko programa.
7. Laburpen ez-teknikoa.

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da ingurumen-azterlan estrategikoak – aurrerantzean, azterlana– hurrengo alderdietan sakondu behar duela, jarraian adierazten den zabalatasun- eta zehaztasun-mailarekin:

1. Edukia, helburuak eta egokiak diren beste plan eta programa batzuekiko harremana

Azterlanak Planaren helburu nagusien laburpen labur bat izango du, eta beste plan eta programa lotuekiko harremanei buruzko azterketa labur bat. Gainera, ingurumen-alderdiak Planaren prestaketan nola txertatzen diren azaldu beharko du. Aztertu beharko da Planaren aplikazioak nola laguntzen duen ingurumen-helburuak txertatzen.

Azterlanak era espezifikoan justifikatu beharko du nola hartu diren kontuan Planaren elaborazioa egitean Ebazpen honetako 3.1 apartatuan ingurumena babesteko jaso diren helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak. Justifikazio hori bai arauetan bai Planean bertan ezarritako adierazleak eta mugen erabilera oinarrituko da.

Apartatu honetan sartuko da lurralde-antolamenduko planak eta aplikatzekoak izan daitezkeen beste plan sektorial batzuk zehatz deskribatzea, eta, dagokionean, Plan Partzialeko eremuan berariaz eragiten duten xedapenak zehaztea.

Ingurumen-azterlan estrategikoak beharrezkoa den informazio guztia barne hartu beharko du eta, bertan, argi eta garbi identifikatu beharko da zein den indarrean den antolamendu xehaketa eta zein den proposatzen dena.

2. Ingurumenaren egungo egoera

Azterlanak ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak deskribatu beharko ditu, eragin nabarmenak jasan ditzaketen guneen ingurumen-ezaugarriak zehaztuz eta Plana aplikatu ezean gune horiek izan dezaketen bilakaera azalduz, klima-aldaketa bera ere kontuan izanik.

Era berean, garrantzitsua izan daitekeen edozein ingurumen-arazo identifikatu behar da, Ebazpen honen D apartatuan identifikatu direnak barne, baita Ebazpen honetako C apartatuan ingurumenaren aldetik nabarmentzat jotako edozein gunerekin erlazionatutako arazoak ere.

Era berean, lurraldearen ingurumen-unitate homogeneousen definizio bat gauzatu da horien paisaia-ezaugarrien eta baliabide naturalen azterketa integratutik abiatuta.

Lehen aipatutako ingurumen-alderdiak era kartografikoan adierazi beharko dira, Plan Partzialaren aldaketa honen izaera espezifikoarekiko eskala proportzionatua.

Ingurumenaren gaur egungo egoeraren deskribapena ingurumen-adierazleak erabilita bermatu beharko da; horretarako, Ingurumen Esparru Programaren adierazleak oinarritutako panelean jasotakoak erabili ahal izango dira, baita lurraldeari eta ingurumenari buruzko EUSTATenak ere, eta



Ebazpen honetako aurreko apartatuetan adierazitako ingurumen-helburuen bilakaerari buruzko informazio garrantzitsua eman dezaketen beste batzuk.

Kontuan izan beharko dira, gutxienez, EAeko lurraldeari dagozkion adierazle hauek:

- Eremu osotik, planteatutako helburua lortzeko eraldatu behar den azalera naturalaren ehunekoa.
- Espazio libreetara zuzenduko den azaleraren ehunekoa.
- Erriberako landaredia-azaleraren ehunekoa.
- Atmosfera-, soinu- eta argi-kutsaduraren adierazleak.

Azterlanak aipatutako adierazleei buruzko datuak izan beharko ditu edo, halakorik ez badu, alderdi berak adierazten dituzten beste adierazle batzuei buruzkoak, kasu bakoitzean datu zehatzak lortzeko izandako balizko zailtasunak justifikatuz. Era berean, proposatzen diren beste adierazle batzuei buruzko datuak jaso beharko ditu azterlanak, ingurumen-zaintzako programa aplikatzeko erreferentziako ingurumen-egoera zehaztuta gera dadin.

3. Ingurumenean gerta daitezkeen eragin esanguratsuak

Apartatu honetan, ingurumenak jasan ditzakeen ondorio nagusiak aztertu beharko dira, hauek barne: biodibertsitatea, biztanleria, gizakien osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, kultura-ondarea (ondare historikoa barne), klima-faktoreak eta horiek klima-aldaketan izan dezakeen eragina – bereziki, Planari lotutako karbono-aztarnaren ebaluazio egokia–, ondasun materialak, kultura-ondarea eta paisaia; faktore horien arteko interakzioa ere kontuan izan behar da, eragindako ekosistemek eskaintutako ingurumen-zerbitzuak ere ebaluatuz. Eragin horiek barnean hartu behar dituzte zeharkako efektuak, metaketak, sinergiak, epe labur, ertain eta luzerako eraginak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterakoak, positiboak eta negatiboak.

Zentzu horretan, Egin Berri sektorearekin batera antolamendu osagarri bat egitea erabaki denez hirigintza-ikuspuntutik multzo urbanizagarriaren funtzionaltasun denik eta onena lortzeko helburuarekin, ingurumen-azterlan estrategikoak bi sektoreetako proposamenek sor ditzaketen ondorio sinergikoak izan beharko ditu kontuan.

Planaren aldaketa aplikatzearen ondorioz planteatzen diren ekintzak zehatz deskribatuko dira azterlanean, ingurumen-kalte nabarmenak izan baditzakete. Horretarako, eremuaren garapenerako behar diren jarduketa guztiak hartuko dira kontuan, batik bat ibilgua aldatzean eta lurzoru urbanizazina bi lutzien fusioak eragindako sektoreru txertatzean sor daitezkeenak.

Horrela identifikatutako ekintza bakoitzerako, espero daitezkeen ingurumen-ondorio gertagarriak deskribatuko dira eta, hala behar denean, ingurumen-ondorio kaltegarri jakin bat gertagaitza dela justifikatu beharko da. Eta identifikatutako inpaktu guztietatik berariaz nabarmendu beharko dira garrantzitsutzat hartutakoak.

Bereziki, zehaztasunez aztertuko dira korridore ekologikoaren moteltze-eremuaren konposizioa, kontserbazio-egoera eta kaltetutako azalera, natura-ondarean galera garbirik ez egoteko eta Izarraitz, Aizkorri-Aratz eta Urkiolako nukleoak batzen dituen korridorean lotura ekologikoa mantentzen dela bermatzeko behar diren zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak ezartzeari begira.

Gainera, eremua garatzeko behar diren jarduketetatik eratorritako ondorioak ebaluatu beharko dira, eta, zehazki, industrialdearen hornikuntzarako eta saneamendurako azpiegiturekin lotutako inpaktuak, eta linea elektriko berrienak.

Era berean, inpaktu akustikoa hartu beharko da kontuan, baita aurreikusitako erabileretan izan dezakeen eragina ere, hartzaileetan kalitate akustikoko helburuak betetzen direla bermatuz.



Aurreikuspenean, zarata handitzearen aukera izan beharko da kontuan, esparruan egon daitekeen trafiko-igoera dela eta.

4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak

Aurreko apartatuan identifikatutako ondorio adierazgarri bakoitzerako, ondorio horiek prebenitzeko, zuzentzeko edo, hala badagokio, konpentsatzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Ahal den heinean, proposatutako neurrietako bakoitza zein garapen-tresnatan inplementatuko den zehaztuko da.

Lurraldearen lotura ekologikoa ziurtatzeko behar diren neurri, arau edo erregulazioak proposatuko dira.

Interes berezikotzat jotzen da Irizar errekaen ertzak landareztatzea, baita berdeguneen zerrenda bat ezartzea ere, tokiko zuhaitzen eta zuhaixka-erakoen espezieekin, Izarraitz, Aizkorri-Aratz eta Urkiola lotunean iragazkortasun ekologikoko eskualde-fluxuak indartzeko. Gainazal handiak iragazgaiztearen ondorioz sortutako jarioak kontrolatzera zuzendutako neurriak ere sartu beharko dira.

Horrez gain, ingurumen-azterlan estrategikoak Planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartuta dauden proiektuen aurreikuspena identifikatu beharko du etorkizunean baimendu ahal izateko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzean sortutako eraginak gutxitzeko gidalerroak ezartzeko.

5. Aukerak hautatzeko prozesua

Hau bilduko da: aukerak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitu bat, bideragarritasun tekniko, ekonomikoa eta ingurumen-arlokoa eta Planaren helburuekiko bat-etortzea eta proportzionaltasuna justifikatuko dituen, batez ere ingurumen-helburuekikoak (zehazki, landarediaren kontserbazioa, Batasunaren intereseko habitatak, lotura ekologikoa, zarata eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak). Gauza bera egingo da espazio libreetarako lursail-erreserbak zehazteko.

Irizar errekaekin lotuta aztertu diren aukerez gain, zonifikazio eta antolamendu xehatuko beste aukera batzuk ere aztertuko dira, berdeguneak areagotzeko xedez. Horien artean, sektorearen iparraldeko zerrendan berdegune bat ezarriko da, EAEko Korridore Ekologikoen Sarearekin bat etorritik, Izarraitz, Aizkorri-Aratz eta Urkiola korridorea sendotzeko. Hautatu den aukera ikusita, behar bezala justifikatu beharko da zergatik jotzen den egokitzat lurzoru urbanizaezina sektorera gehitzea.

Azterketa horretan ebaluazioa egiteko modua deskribatuko da, bai eta aurkitutako zailtasunak ere; esate baterako, eskatutako informazioa biltzean beharbada aurkitu diren gabezia teknikoak, edo ezagutza eta eskarmentu falta.

6. Ingurumena zaintzeko programa

Azterlanak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak ikuskatzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Ingurumena zaintzeko programan, adierazleak deskribatuko dira eta, behar izanez gero, ondorio garrantzitsuenen erreferentzia-balioak, bai positiboak bai negatiboak.

Ingurumena zaintzeko programak Ebazpen honetako F.2 atala betetzeko proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu azterlanean. Era berean, kasuan-kasuan datuak zein periodikotasun eta metodologiaren bidez jasoko diren azaltzeko proposamen zehatz bat ere jaso beharko du.



7. Laburpen ez-teknikoa

Azterlanak aurreko epigrafeen arabera emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat izango du; herritarrek oro har ulertzeko moduko informazio zehatza izango du, aztertutako alderdi guztiak landuko ditu eta, era berean, informazio grafikoa izango du, dokumentu autoaskia eta azterlanarekiko independentea izan dadin.

Hasierako onespeneren ondoren sustatzaileak kontsultatu beharko dituen eraginpeko administrazio publikoak eta publiko interesduna

Ebazpen honetako kontsulten izapidea betetzeko erabilitako zerrenda huraxe hartuko da gai honen eraginpeko administrazio publikoen eta pertsona interesdunen zerrenda osatzeko, halaxe xedatzen baitute 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 12. artikuluan, eta 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 22. artikuluan. Ingurumen-organoak, ebazpen honetako aurreko apartatueta aipatu bezala, honako hauei kontsulta egin die:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Ura, Uraren Euskal Agentzia.
- IHOBE. Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumenaren Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan Elkarte.
- Itsas Enara Ornitologia Elkarte.
- Haritzalde Naturzaleen Elkarte.
- Eguzki, Eguzkizaleak Elkarte.

H Jendaurreko informazioaren eta kontsulten modalitateen, iraupenaren eta epeen definizioa

Organo substantiboak edo, hala badagokio, sustatzaileak (aztergai dugun honetan biak bera dira) Plan honen hasierako bertsioa zein ingurumen-azterlan estrategikoa jendaurrean jarriko ditu, gutxienez 45 egunez. Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak kontsultatutako erakundeen iritzia jaso beharko du.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17. artikulua arabera, gehienez ere hamabost hilabetekoa izango da Azterlana, arauaren 21. eta 22. artikuluetan aurreikusitako kontsultak eta informazio publikoaren prozedura gauzatzeko epea, irismeneko dokumentu honen erakunde sustatzaileari jakinarazten zaion egunetik hasita.

I Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikulua arabera, kualifikazio profesional eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoak duten pertsonak egingo dute azterlana, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du. Azterlanaren egileak identifikatu egin beharko dira, haien titulazioa eta, hala badagokio, lanbide arautua adierazita. Identifikazioak izena, abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren kodea edo helburu berberetarako balio duen beste dokumentu bat izango ditu. Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Azterlanaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira horiek, Administrazioak berak frogagarri gisa emandako datuak alde batera utzita.

Dokumentazioa aurkezteko, jarraibide hauek bete beharko dira:



1. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek koherentzia egokia errespetatu beharko dute, haien artean nahiz aurretik aurkeztutakoekin, halakorik bada, hartara erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana erraztuz eta ez eragotziz.
2. Arreta berezia jarri beharko da kasu bakoitzean dokumentu teknikoan apartatuak haien artean erlazionatzea ahalbidetzen duten datuak adieraztean (esaterako, apartatu batean proiektuko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inpaktuak, bi kasuetan ekintzak izen berarekin aipatu beharko dira).
3. Beharrezkoa bada, datuak zein iturritatik lortu diren adierazi behar da.
4. Dokumentazio grafikoa eta kartografikoa sartu beharko da, behar bezala geoerreferentziatua, behar duten apartatuetan.
5. Plano guztiak kodearekin eta tituluarekin identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.
6. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, zuzendu egin beharko da planoan jatorrian adierazitako eskala, aurkeztutako planoan oinarritutako neurketek ez dezaten akatsik izan.
7. Testuetan zehar aipaturiko eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak dokumentazioarekin batera aurkeztuko dira. Erreferentzia horiek kasuan kasuko elementua erraz aurkitzeko moduan egingo dira, argi eta garbi.
8. Informazio jakin bat dokumentuko apartaturen baten zuzenketa gisa aurkeztekotan, eta aldi berean espedientean zuzendu nahi den apartatua mantentzen bada, informazio berriak adierazi beharko ditu zuzenketaren ondorioz jatorrizko dokumentuan ezeztatutzat edo ordezkatzutzat jo beharreko kapituluak, orrialdeak, epigrafeak, apartatuak, paragrafoak, esaldiak, koadroak, irudiak, planoak eta abar. Aurreko informazioaren bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Eskaera bat zuzentzeko aipatutako jarraibideak betetzen ez badira, izapide gehigarri bat eskatu ahal izango da, kontraesanezko edo inkongruenteak izan daitezkeen alderdiak argitzeko, horrek prozeduraren ebazpenean dakarren atzerapenarekin.
9. Eskaera IKS-eem sistemaren bidez aurkeztu beharko da, aplikatu daitezkeen eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean eskura daitezkeen fitxak eta formularioak erabilita, zehazki, helbide honetan: <http://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumenari-buruzko-izapide-elektronikoen-gida/web01-a2inguru/eu/>
10. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkezten denean, gehienez 30 MB izango ditu eta bilaketak egitea ahalbidetu beharko du. Dokumentu handiagoak zatitu egin beharko dira, sisteman sartzeko.
11. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibide osoa txertatuko da, adierazitako apartatuetako bakoitza zein orrialdetan dagoen zehaztuta. Aurkibidea aurkeztean .pdf dokumentu baterako, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorriko da orrialde hori aurkitzeko irakurketa-programaren «Joan orrialde honetara» eremuan adierazi behar denarekin.
12. Dokumentu kartografikoak .pdf formatuan eta .shp formatuan entregatu beharko dira. Plano horiek kode batekin eta izenburuarekin identifikatu beharko dira; halaber, legenda bat izan beharko dute, eta adierazitako datuak ongi interpretatzeko beharrezko sinbologia. Shape artxiboak gehienez 10 Mb-koak izango dira, haiek manipulatzeko arazorik sor ez dadin. Planaren eremuan lurzoru kutsatuak daudela aintzat hartuta, eremuaren eta antolamendu xehatuaren planoak .shp formatuan aurkeztu beharko dira.
13. Organo sustatzaileak, datuak igortzean, datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzen duela bermatu beharko du beti.

Bigarrena.- Azkoitiko Udalari ebazpen hau jakinaraztea.



Hirugarrena.- Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 18a.



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
URBANISMO Y VIVIENDA
Ivan Pedreira Lanchas
Ingurumen Administrazioaren zuzendaria
Director de Administración Ambiental